eskoriatzako udala

**Idazkaritza-Kontuhartzailetza**

2024/03/21ean EGINDAKO EZ OHIKO OSOKO BILKURA.

SESIÓN EXTRAORDINARIA DEL PLENO DE LA CORPORACIÓN. Día 21/03/2024.

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Edorta Zubizarreta Alegria

Zinegotziak

Alaitz Orueta Arrese
Xabier Uriarte Iñurrategi
Irati Iglesias Pozo
Mikel Luengo Gabarain
Dorleta Sologaistoa Aguiriano
Maite Uribe Beristain
Antonio Regaño Sajeras
Puri Regidor Varela
Josu Ezkurdia Santamaria

Idazkaria

EDURNE ITURBE LASKURAIN

Eskoriatzan, 2024ko martxoaren 21ean, arratsaldeko 18:00etan, Osoko Bilkura aretoan, Edorta Zubizarreta Alegria alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Ezohiko Osoko bilkura, gai zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez da etorri Edorta Barandiaran García.

En Eskoriatza, siendo las 18:00 horas del día 21 de marzo de 2024, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión Extraordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente Edorta Zubizarreta Alegria, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asiste Edorta Barandiaran García.

## 1.- AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.

2024/02/22an egindako osoko bilkurako akta onartu da. .

## 2.- ALKATEAREN JAKINARAZPENAK.

2024ko martxoaren 14ra arte Alkateak hartutako erabakien berri eman da.

## 3.- HERRIKO KALEAK GARBITZEKO ZERBITZUA EMATEKO KONTRATUA ESLEITZEKO AURKEZTUTAKO ESKAINTZA KENTZEAGATIK ZEHAPENA EZARTZEKO PROZEDURA HASTEA.

2023ko urriaren 26an, Udalbatzarrak erabaki zuen Eskoriatzako kaleak garbitzeko zerbitzua emateko kontratazio-espedientea onartzea (nahitaezko zerbitzuak eta aukerako zerbitzuak). Lizitazio-aurrekontua urteko 209.182,96 eurokoa zen, gehi 20.918,30 euroko BEZa.

Prozedura irekia zenez, eta SPKLren 156. artikuluaren arabera, lizitazioa kontratatzailearen profilean argitaratu zen, eta 2023ko azaroaren 22ko 24:00etan amaitu zen proposamenak aurkezteko epea.

Epe horren barruan, enpresa bakar batek aurkeztu zuen eskaintza: SERVICIOS URBANOS DE LIMPIEZA Y ACONDICIONAMIENTO S.L.

2023ko abenduaren 21eko bileran, Kontratazio Mahaiak, aho batez, kontratua SERVICIOS URBANOS DE LIMPIEZA Y ACONDICIONAMIENTO SL enpresari esleitzea proposatzea erabaki zuen.

Halaber, Kontratazio Mahaiak erabaki zuen puntuazio onena lortu zuen enpresari errekerimendua egitea jakinarazpena bidali zitzaionetik 10 egun baliodunеko epean behin betiko bermea eratu izana justifikatzeko dokumentua eta kontratazioa arautzen duen baldintza administratiboen agiriko 22. baldintzan adierazitako gainerako dokumentazioa aurkeztu zezan.

SERVICIOS URBANOS DE LIMPIEZA Y ACONDICIONAMIENTO SL enpresak 2023ko abenduaren 21ean jaso zuen errekerimendua. Eskatutako dokumentazioa aurkezteko epea 2024ko urtarrilaren 8an amaitzen zen.

2024ko urtarrilaren 3an, SERVICIOS URBANOS DE LIMPIEZA Y ACONDICIONAMIENTO SL enpresak bilera bat egiteko eta dokumentazioa aurkezteko emandako epea eteteko eskatu zuen. Horretarako, Bide Garbiketa Publikoaren eta Hiri Hondakin Solidoen Bilketaren Gipuzkoako Hitzarmen Kolektibo berriaren ondoriozko soldata-igoerarekin sortutako egoera alegatu zuen. Hitzarmen hori 2023ko abenduan negoziatu zen.

Eskatutako bilera egin ondoren, eta planteatutako gai ekonomikoak aztertu ondoren, 2024ko urtarrilaren 11n, SERVICIOS URBANOS DE LIMPIEZA Y ACONDICIONAMIENTO SL enpresak idazki bat aurkeztu zuen, lizitazioa bertan behera uzteko eta, beraz, sozietateak eskatutako dokumentazioa aurkezteko betebeharretik salbuesteko eskatuz.

Aurreko idazkiaren edukitik argi eta garbi ondorioztatzen zen SERVICIOS URBANOS DE LIMPIEZA Y ACONDICIONAMIENTO SL enpresa lizitatzaile bakarrak bere eskaintza erretiratu

zuela eta, horregatik, Udalbatzarrak, beste lizitatzaile bat ez zegoenez, lizitazioa esleitu gabe utzi zuen 2024ko urtarrilaren 25eko bilkuran.

Aurreko guztia kontuan hartuta, egiaztatu da SERVICIOS URBANOS DE LIMPIEZA Y ACONDICIONAMIENTO SL merkataritza-sozietateak, dokumentazioa emandako epean aurkezteko errekerimendua bete ez duenez, eskaintza kendu duela, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 150.2 artikuluan jaso bezala.

Artikulu horren arabera, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren ehuneko 3 eskatu behar da, BEZik gabe, zehapen gisa. Zenbateko hori, lehenik eta behin, behin betiko bermearen kontra ordainduko da, baldin eta berme hori eratu bada.

Behin betiko bermea jarri ez denez, Lurraldea eta Garapen Ekonomiko Jasangarria batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.-** Prozedura hastea, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 150.2 artikuluari jarraiki zehazteko SERVICIOS URBANOS DE LIMPIEZA Y ACONDICIONAMIENTO SL merkataritza-sozietateak ez duela bete kontratua esleitzeko Eskoriatzako kaleak garbitzeko zerbitzua emateko kontratazioa arautzen duten administrazio baldintza agiriaren 22.2 klausulan aurreikusitako dokumentazioa aurkezteko betebeharra. Horretarako, honako erabaki-proposamena egitea:

1.- Zehaztea, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 150.2 artikuluaren arabera, SERVICIOS URBANOS DE LIMPIEZA Y ACONDICIONAMIENTO SL merkataritza-sozietateak ez duela bete Eskoriatzako kaleak garbitzeko zerbitzua emateko kontratua esleitzeko beharrezkoa den dokumentazioa aurkezteko betebeharra.

2.- 6.275,48 euroko zehapena ezartzea, Eskoriatzako kaleak garbitzeko zerbitzua emateko administrazio-kontratuaren lizitaziorako oinarrizko aurrekontuaren ehuneko 3koari, BEZik gabe, dagokiona, zehapen gisa, 71. artikuluko 2. paragrafoko a) idatz-zatian ezarritakoari kalterik egin gabe.

3.- SERVICIOS URBANOS DE LIMPIEZA Y ACONDICIONAMIENTO SL merkataritza-sozietateari ezarritako zehapena hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, ordain dezala eskatzea.

**BIGARRENA.-** Entzunaldi-tramitea ematea SERVICIOS URBANOS DE LIMPIEZA Y ACONDICIONAMIENTO SL enpresari, bere interesak defendatzeko egokitzat jotzen dituen alegazioak aurkez ditzan, gehienez ere hamar egun balioduneko epean erabaki hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

**HIRUGARRENA.-** Erabaki hau SERVICIOS URBANOS DE LIMPIEZA Y ACONDICIONAMIENTO SL merkataritza-sozietateari jakinaraztea.

## 4.- KALEAK GARBITZEKO ZERBITZUAREN KONTRATAZIOA: ESPEDIENTEA ONARTZEA ETA LIZITAZIORAKO DEIALDIA EGITEA

Garapen Ekonomiko Jasangarria batzorde informatzailearen diktamena ikusita, horrekin bat eginda, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.-** Eskoriatzako kaleak garbitzeko zerbitzua (derrigorrezko zerbitzuak eta aukerako zerbitzuak) prozedura ireki bidez eta hainbat esleipen irizpideren arabera kontratatzeko espedientea onartzea. Kontratuari kalkulatutako balioa 253.350,78 euro urteko da (BEZik gabe), eta kontratuak urtebeteko iraupena izango du, beste 2 urtez luzatu ahal izango dena, baina, iraupena, guztira, ezingo da 3 urtetik gorakoa izan.

**BIGARRENA.-** Zerbitzu kontratu honen prozedura ireki bidezko kontratazioa arautu behar duten administrazio baldintza partikularren agiria eta baldintza teknikoen agiria onartzea.

**HIRUGARRENA.-** Kontratu hau prozedura ireki bidez esleitzeko prozedura hastea, eta lizitaziorako dagokion iragarkia Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean (EBAOn) argitaratzeko agintzea, ondoren kontratatzailearen profilean argitaratzeko, nahi duenak proposamenak aurkeztu ditzan 26 egun naturaleko epean iragarkia EBAOra bidaltzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

**LAUGARRENA.-** 190.013,09 euroko gastua onartzea 2024ko ekitaldirako indarrean dagoen udal honetako gastuen aurrekontuko dagokion aplikazioaren kargura.

## 5.- ESKORIATZAKO MANUEL MUÑOZ KIROLDEGIKO FITNESS ETA CARDIO ARETOEN EKIPAMENDUA LEASING BIDEZ HORNITU, JARRI ETA MANTENTZE-LANAK EGITEKO KONTRATAZIOA: ESPEDIENTEA ONARTZEA ETA LEHIAKETARAKO DEIALDIA EGITEA.

Gizarte Zerbitzuak eta Kirola batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.-** Eskoriatzako Manuel Muñoz kiroldegiko gimnasioko fitness eta kardio aretoetako ekipamenduaren leasing bidezko hornidura, instalazioa eta mantentze-lanak prozedura ireki bidez eta hainbat esleipen-irizpiderekin kontratatzeko espedientea onartzea. Kontratuaren zenbatekoa 125.000,10 eurokoa da, Balio Erantsiaren gaineko Zergari dagozkion 26.250,021 euro jasanarazi beharko zaizkionak, eta, iraupena, berriz, 59 hilabetekoa.

**BIGARRENA.-** Hornidura kontratu honen prozedura ireki bidezko kontratazioa arautu behar duten administrazio baldintza partikularren agiria eta baldintza teknikoen agiria onartzea.

**HIRUGARRENA.-** Kontratu hau prozedura ireki arrunt bidez esleitzeko prozedura hastea, eta lizitaziorako dagokion iragarkia kontratazio organo honen kontratatzailearen profilean argitaratzeko agintzea, egoki iritzitako proposamenak hamabost egun naturaleko epean aurkeztu daitezen.

**LAUGARRENA.-** Urte anitzeko 151.250.121 euroko (BEZa barne) gastua baimentzea, gehienez ere 59 hilabeteko eperako, kontratua formalizatzen den egunetik zenbatzen hasita.

Zenbateko hori honela banatuko da urteka, kontratua benetan noiz izenpetzen den kontuan hartuta gerora egin daitekeen birdoiketaren kalterik gabe:

| EKITALDI A | AURREKONTU PARTIDAK | ZENBATEKOA (BEZa barne) |
|---|---|---|
| 2024 | 1.0300.641.342.20.01 | 19.688,32 |
| 2025 | 1.0300.641.342.20.01 | 29.532,48 |

| | | |
|---|---|---|
| 2026 | 1.0300.641.342.20.01 | 29.532,48 |
| 2027 | 1.0300.641.342.20.01 | 29.532,48 |
| 2028 | 1.0300.641.342.20.01 | 29.532,48 |
| 2029 | 1.0300.641.342.20.01 | 13.433,12 |

**BOSGARRENA.-** Kontratuaren arduradun, SPKLren 62. artikuluan ezarritakoaren arabera, ATHLON SINTAGMIA SL enpresa izendatzea. Enpresa horri dagokio kontratuaren gauzatzea gainbegiratzea eta beharrezko jarraibideak ematea itundutako hornidura behar bezala egiten dela ziurtatzeko.

BOTO AZALPENA:

* Josu Ezkurdia: ezer baino lehen, adierazi nahi dugu poztu egin gintuela EH BILDUk proiektu honekin jarraitzea erabaki duela jakiteak. Guk, aurreko legegintzaldiaren amaieran, gimnasio berriak egiteko proiektua jarri genuen martxan, eta poztekoa da zuek lekukoa hartu izana. Horregatik bozkatuko dugu alde. Hala ere, leasing-aren gaia ez dugu oso argi ikusten, Udala ekonomikoki ondo dagoelako eta, gainera, aurten diru-sarrerak handitzea espero delako. Horregatik, ez dugu egoki ikusten interesengatik tasa bat ordaintzea. Hori esanda, eta hori kudeaketa-gaia izanik, eta kudeaketa zuen kontua dela eta errespetatzen dugula kontuan hartuta, proiektuarekin ados gaudenez, alde bozkatuko dugu.

## 6.- BATERAGARRITASUN AITORPEN ESKAERA

2023ko abenduaren 15eko Alkate erabakiz, Eskoriatzako Udaleko gizarte-langile plaza bat merezimendu-lehiaketa bidez betetzeko hautaketa-prozesuaren oinarri orokorrak eta espezifikoak onartu ziren (2022ko abenduaren 27ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 244. zk.).

Merezimenduen balorazioa amaituta, Epaimahai Kalifikatzaileak Beronika Solaguren Martín praktiketako funtzionario izendatzeko proposamena argitaratu du.

Izendatua izateko eta gizarte-langile lanpostua hartzeko, sektore pribatuan egiten duen jarduerarekin bateragarri izateko eskaera egin du interesdunak.

Eskaera aztertu da, eta kontuan hartu da enplegatu publikoen bateraezintasunak Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean araututa daudela. Lege horren 11. artikulutik 15.era bitartekoek jarduera pribatuekin bateragarritasuna edo bateraezintasuna arautzen dute.

Lege horretan xedatutakoa toki-erakundeetako langile guztiei aplikatzekoa da, lan-harremanaren izaera juridikoa edozein dela ere, 2.1.c.9 artikuluan ezarritakoaren arabera eta apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako toki-araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testu bateginaren 145. artikuluarekin bat etorriz.

Herri administrazioetatik kanpoko lanbide, lan, merkataritza edo industria jarduerak egitearekin bateragarritasunari dagokionez, herri administrazioen zerbitzuko langileen bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legeak, 14. artikuluan, eskatzen du aurretiaz bateragarritasun aitorpena egin behar dela.

Eskatutako bateragarritasuna bat dator Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Bateraezintasunei buruzko Legeak eskatutakoarekin.

Horiek horrela, eta kontuan harturik bateragarritasuna baimentzea edo ukatzea Udalbatzarrari dagokiola, eta Antolaketa eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.-** Baimena ematea Beronika Solaguren Martín andreari EZPELETA DRIVE enpresaren (IFK: B42890376) administratzaile bakarraren jarduerarekin bateragarria izan dadin, aurrez azaldutako arrazoiengatik. Arrazoi horiek hemen adierazitzat jotzen dira ondorio guztietarako.

**BIGARRENA.-** Baimenak ez du inola ere ekarriko interesdunaren lanaldia edo ordutegia aldatzea, eta automatikoki ondoriorik gabe geratuko da sektore publikoan lanpostuz aldatzen bada.

**HIRUGARRENA.-** Enpresa horretan jarduera egiteak ez du inola ere kaltetuko bizilekua izateko betebeharra edo lantokira joatekoa, ez eta lana atzeratzea edo lanean zabarkeriaz edo arduragabekeriaz jokatzea ekarri ere. Faltak aplikatu beharreko legeriaren arabera kalifikatu eta zehatuko dira, eta bateragarritasun baimena edo aitorpena automatikoki baliogabetuko da, dagokion erabakian falta astuntzat edo oso astuntzat jotzen bada.

**LAUGARRENA.-** Hartutako erabakia interesdunari jakinaraztea.

## 7.- ESKORIATZAKO JAIETAN BARRAKEN ETA AZOKA ATRAKZIOEN INSTALAZIOA ARAUTZEKO ORDENANTZA: hasierako onarpena.

Onartu dadin aurkeztutako ESKORIATZAKO JAIETAN BARRAKEN ETA AZOKA ATRAKZIOEN INSTALAZIOA ARAUTZEKO ORDENANTZA proposamena ikusita, eta Antolaketa eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.-** Hasiera batean onartzea ESKORIATZAKO JAIETAN BARRAKEN ETA AZOKA ATRAKZIOEN INSTALAZIOA ARAUTZEKO ORDENANTZA.

**BIGARRENA.-** Erabaki hau jendaurrean jartzea 30 egun balioduneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaleko iragarki-oholean eta webgunean iragarkiak jarriz, interesdunek erreklamazioak jarri edo eragozpenak edo oharrak egin ditzaten. Erreklamaziorik, eragozpenik edo oharrik aurkezten ez bada, hasierako erabakia automatikoki behin betikotzat joko da.

**HIRUGARRENA.-** Alkate-udalburuari ahalmena ematea hasierako erabakia behin betiko bihurtzeko erabaki bidez, erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada.

## 8.- 4. KREDITU ALDAKETA ESPEDIENTEA.

Udal honetako aurrekontuan eragina duen kredituak aldatzeko 4/2024. espedientearen berri eman da. Kreditu aldaketa aurrekontuetako gastu partiden arteko kreditu transferentzia bidez egingo da.

Idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena irakurri da, non adierazten baitu aipatutako espedientea aplikagarri zaion araudiari egokitzen zaiola, hain zuzen ere, Toki Erakundeen

Aurrekontu erregelamendua onartzen duen Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 28 a) eta 29 artikuluetan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Era berean, Antolaketa eta Ogasuna batzorde informatzaileak egindako aldeko txostena eta onespen proposamena irakurri dira.

Diktamena aztertu eta bozkatu da, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI du:

**LEHENENGOA.-** Udal honetako aurrekontuari dagozkion kredituak aldatzeko 4/2024. espedientea onartzea, horretarako egindako proposamenean zerrendatzen diren aurrekontuetako gastu partiden arteko transferentzia bidez, eta ondorengo kapitulukako laburpenaren arabera.

**Kredituak transferituko dituzten gastu partidak (bajak)**

| Partida | Izena | Hasierako kreditua | Murrizketa | Amaierako kreditua |
|---|---|---|---|---|
| 1 0300.625.342.20.99 2024 | BESTELAKO LANABESAK: KIROLDEGIA | 99.107,70 | 99.107,70 | 0,00 |
| | | | | |
| **GUZTIRA** | | **99.107,70** | **99.107,70** | **0,00** |

**Kreditua jasoko duten gastu partidak (altak)**

| Partida (*) | Izena | Hasierako kreditua | Gehikuntza | Amaierako kreditua |
|---|---|---|---|---|
| 1 0300.641.342.20.01 2024 | LEASING.KIROLDEGIA. GIMNASIOKO MAKINAK | 0,00 | 19.700,00 | 19.700,00 |
| 1 0100.624.153.40.01 2024 | IBILGAILUA: OBRA-ZERBITZUAK | 0,00 | 79.407,70 | 79.407,70 |
| | | | | |
| **GUZTIRA** | | **0,00** | **99.107,70** | **99.107,70** |

*Aurrekontuko partida berriak sortu ahal izango dira.

**BIGARRENA.-** Egintza hau irmoa eta exekutiboa izanik bestelako tramite barik, Fondoak Interbenitzeko Zerbitzuak, bestelako tramiterik gabe eta berehalako eraginarekin, kontabilitatean adieraziko du onartutako kreditu aldaketa.

## 9.- EUSKO LEGEBILTZARRERAKO 2024KO HAUTESKUNDEAK: hauteskunde mahaietako kideak hautatzeko zozketa.

Indarrean dagoen Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoaren 26. artikuluan xedatutakoa betez, Hauteskunde Erroldaren Bulegoaren IDA_CELEC plataformaren bidez zozketa egin da datorren apirilaren 21eko hauteskundeetan (EUSKO LEGEBILTZARRA 2024) eratu beharko diren hauteskunde-mahaietako kideak izendatzeko.

Zozketa eginda, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau erabaki du:

**LEHENENGOA.-** Eskualdeko Hauteskunde Batzordeak alegazioak eta aitzakiak onartzeagatik hutsik gera daitezkeen karguak betetzeko pertsonak zozketa bidez hautatzeko ahalmena Alkateari eskuordetzea. Lan horretarako Eskoriatzako Udaleko Bozeramaileen Batzordearen laguntza izango luke.

## 10.- GALDE-ESKEAK.

Ez da egon.

**Eta beste gairik ez dagoenez, 18:16ean amaitutzat ematen da bilera, eta bertan gertatutakoa, nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.**

ESKORIATZAKO UDALA
alkatetza
EDORTA ZUBIZARRETA ALEGRIA
2024/04/2619:26:23

ESKORIATZAKO UDALA
idazkaritza
kontuhartzailetza
MIREN EDURNE ITURBE LASCURAIN
2024/04/2615:00:06

## 1.- APROBACIÓN DE ACTA DE SESIÓN ANTERIOR.

Por encontrar conforme es aprobada el acta de la sesión celebrada en fecha 22/02/2024 .

## 2.- COMUNICACIONES DE ALCALDÍA.

Se da cuenta de las resoluciones dictadas hasta el día 14 de marzo de 2024

## 3.- INICIO DE PROCEDIMIENTO PARA IMPOSICIÓN DE PENALIDAD POR RETIRAR LAOFERTA PRESENTADA PARA LA ADJUDICACION DEL CONTRATO DE PRESTACIÓN DEL SERVICIO DE LIMPIEZA VIARIA URBANA

En fecha 26 de octubre de 2023 el Pleno de la Corporación acordó aprobar el expediente de contratación de la prestación del servicio de limpieza viaria urbana en el municipio de Eskoriatza (servicios obligatorios y servicios opcionales), con un presupuesto de licitación de 209.182,96 euros anuales, más 20.918,30 euros de IVA

Al tratarse de un procedimiento abierto, y de acuerdo con lo indicado en el art. 156 de la LCSP, la licitación se publicó en el Perfil del Contratante, finalizando a las 24:00 horas del día 22 de noviembre de 2023 el plazo de presentación de proposiciones.

Dentro del plazo señalado, presentó oferta una única empresa: SERVICIOS URBANOS DE LIMPIEZA Y ACONDICIONAMIENTO S.L.

En sesión de fecha 21 de diciembre de 2023, la Mesa de Contratación, por unanimidad de sus miembros, acordó proponer la adjudicación del contrato a la empresa SERVICIOS URBANOS DE LIMPIEZA Y ACONDICIONAMIENTO SL

La Mesa de Contratación también acordó requerir a dicha empresa a que, en el plazo de 10 días hábiles a contar desde el envío de la comunicación, presentase el documento justificativo de la constitución de la garantía definitiva y demás documentación señalada en la cláusula 22 del Pliego de Condiciones Administrativas que rige la contratación.

La empresa SERVICIOS URBANOS DE LIMPIEZA Y ACONDICIONAMIENTO SL recibió el requerimiento el día 21 de diciembre de 2023. El plazo para presentar la documentación exigida finalizaba el 8 de enero de 2024.

Con fecha 3 de enero de 2024 SERVICIOS URBANOS DE LIMPIEZA Y ACONDICIONAMIENTO SL solicitó mantener una reunión y que se suspendiera el plazo concedido para entregar la documentación. Alegaba para ello la situación generada con el incremento salarial que conlleva el nuevo convenio colectivo de Limpieza Publica Viaria y Recogida de Residuos Sólidos Urbanos de Gipuzkoa negociado durante el mes de diciembre de 2023.

Mantenida la reunión solicitada, y tratadas las cuestiones de índole económico planteadas, con fecha 11 de enero de 2024 SERVICIOS URBANOS DE LIMPIEZA Y ACONDICIONAMIENTO

SL presentó un escrito solicitando que se dejara sin efecto la licitación y que se exima por tanto a la sociedad de aportar la documentación requerida.

Del contenido del anterior escrito se desprendía claramente que SERVICIOS URBANOS DE LIMPIEZA Y ACONDICIONAMIENTO SL, única empresa licitadora, retiraba su oferta y por ello el Pleno, ante la ausencia de otro licitador, declaró desierta la licitación en sesión de fecha 25 de enero de 2024.

De cuanto antecede queda constatado que la mercantil SERVICIOS URBANOS DE LIMPIEZA Y ACONDICIONAMIENTO SL., al no cumplir con el requerimiento de presentar la documentación en el plazo concedido, ha retirado su oferta en los términos del art. 150.2 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público.

Según el citado artículo procede exigir el importe del 3 por ciento del presupuesto base de licitación, IVA excluido, en concepto de penalidad, que se hará efectivo en primer lugar contra la garantía definitiva, si se hubiera constituido.

Resultando que la garantía definitiva no ha sido constituida, de conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Territorio y Desarrollo Económico y el voto favorable de todos los corporativos presentes, el Pleno ACUERDA:

**PRIMERO.-** Incoar el procedimiento para determinar, en los términos del art. 150.2 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, el incumplimiento de la mercantil SERVICIOS URBANOS DE LIMPIEZA Y ACONDICIONAMIENTO SL de su obligación de presentar, para adjudicar el contrato, la documentación prevista en la cláusula 22.2 del Pliego de Cláusulas Administrativas que rigen la contratación de la prestación del servicio de limpieza viaria urbana en el municipio de Eskoriatza. A tal efecto formular la siguiente propuesta de resolución:

1.- Determinar, en los términos del artículo 150.2 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, el incumplimiento de la mercantil SERVICIOS URBANOS DE LIMPIEZA Y ACONDICIONAMIENTO SL de su obligación de presentar la documentación necesaria para adjudicar el contrato de prestación del servicio de limpieza viaria urbana en el municipio de Eskoriatza.

2.- Acordar la imposición de la penalidad de 6.275,48 euros, correspondientes al importe del 3 por ciento del presupuesto base de licitación, IVA excluido, en concepto de penalidad del contrato administrativo de prestación del servicio de limpieza viaria urbana en el municipio de Eskoriatza, sin perjuicio de lo establecido en la letra a) del apartado 2 del artículo 71.

3.- Exigir a la mercantil SERVICIOS URBANOS DE LIMPIEZA Y ACONDICIONAMIENTO SL el abono de la penalidad impuesta dentro del plazo de un mes a contar desde el día siguiente al del recibo de la notificación de la presente resolución.

**SEGUNDO. -** Otorgar trámite de audiencia a SERVICIOS URBANOS DE LIMPIEZA Y ACONDICIONAMIENTO SL para que, en el plazo máximo de diez días hábiles a contar desde el día siguiente a la notificación de este acuerdo, pueda presentar las alegaciones que estime oportunas para la defensa de sus intereses.

**TERCERO. -** Notificar el presente acuerdo a la mercantil SERVICIOS URBANOS DE LIMPIEZA Y ACONDICIONAMIENTO SL.

**4.- CONTRATACION DEL SERVICIO DE LIMPIEZA VIARIA URBANA: APROBACIÓN DEL EXPEDIENTE Y CONVOCATORIA DE LA LICITACIÓN.**

Visto del dictamen de la Comisión Informativa de Territorio y Desarrollo Económico, de conformidad con el mismo y con el voto favorable de todos los corporativos presentes, el Pleno ACUERDA:

**PRIMERO**. – Aprobar el expediente de contratación, mediante procedimiento abierto, con varios criterios de adjudicación, de prestación del servicio de limpieza viaria urbana en el municipio de Eskoriatza (servicios obligatorios y servicios opcionales), y con valor estimado por importe de 253.350,78 (IVA incluido) euros al año, y una duración de 1 año, que podrá ser prorrogado por otros 2 años más sin que la duración total del mismo pueda exceder de 3 años.

**SEGUNDO**. - Aprobar los Pliegos de Cláusulas Administrativas y de Prescripciones Técnicas que han de regir la contratación mediante procedimiento abierto del presente contrato de servicios

**TERCERO. -** Proceder a la apertura del procedimiento de adjudicación del presente contrato por procedimiento abierto, dando orden de que se proceda a la publicación del pertinente anuncio en el Diario Oficial de la Unión Europea -DOUE-, que precederá al anuncio en el Perfil del Contratante, para que dentro del plazo de 26 días naturales, contado a partir del siguiente a la fecha del envío del anuncio al Diario Oficial de la Unión Europea se presenten las proposiciones que se estimen pertinentes.

**CUARTO**. - Aprobar el gasto por importe de 190.013,09 euros, con cargo a la aplicación presupuestaria correspondiente del Presupuesto de gastos de este Ayuntamiento para el ejercicio 2024 en vigor.

**5.-CONTRATACIÓN DE SUMINISTRO, INSTALACIÓN Y MANTENIMIENTO MEDIANTE LEASING DEL EQUIPAMIENTO DE LAS SALAS DE GIMNASIO FITNESS Y CARDIO DEL POLIDEPORTIVO MANUEL MUÑOZ DE ESKORITZA: APROBACIÓN DE ESPEDIENTE Y CONVOCATORIA DE LA LICITACIÓN.**

De conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Servicios Sociales y Deportes y el voto favorable de todos los corporativos presentes, el Pleno ACUERDA:

**PRIMERO**. – Aprobar el expediente de contratación, mediante procedimiento abierto, con varios criterios de adjudicación, del suministro, instalación y mantenimiento mediante leasing del equipamiento de las salas de gimnasio fitness y cardio del polideportivo Manuel Munoz de Eskoriatza, por importe de 125.000, 100 euros, a los que se deberá repercutir 26.250,021 euros correspondientes al Impuesto sobre el Valor añadido, y una duración 59 meses.

**SEGUNDO**. - Aprobar los Pliegos de Cláusulas Administrativas y de Prescripciones Técnicas que han de regir la contratación mediante procedimiento abierto del presente contrato de suministro.

**TERCERO. -** Proceder a la apertura del procedimiento de adjudicación del presente contrato por procedimiento abierto ordinario , dando orden de que se proceda a la publicación del pertinente anuncio de licitación en el perfil del contratante de este órgano de contratación, para que en el plazo de 15 días naturales se presenten las proposiciones que se estimen pertinentes.

**CUARTO**. – Autorizar el gasto de carácter plurianual por importe de 151.250.121 euros (IVA incluido) como límite máximo para un plazo de 59 meses , contados a partir de la fecha de formalización del contrato.
Dicho importe queda distribuido por anualidades de la siguiente manera, sin perjuicio de un reajuste posterior en función de la fecha efectiva en que finalmente se suscriba el contrato:

| EJERCICIO | PARTIDAS PRESUPUESTARIAS | IMPORTE (IVA incluido) |
|---|---|---|
| 2024 | 1.0300.641.342.20.01 | 19688,32 |
| 2025 | 1.0300.641.342.20.01 | 29532,48 |
| 2026 | 1.0300.641.342.20.01 | 29532,48 |
| 2027 | 1.0300.641.342.20.01 | 29532,48 |
| 2028 | 1.0300.641.342.20.01 | 29532,48 |
| 2029 | 1.0300.641.342.20.01 | 13433,12 |

**QUINTO.-** Designar Responsable del Contrato, en los términos descritos en el articulo 62 de la LCSP, a la empresa ATHLON SINTAGMIA SL, a quien corresponderá supervisar su ejecución y dictar las instrucciones necesarias con el fin de asegurar la correcta realización del suministro pactado.

EXPLICACION DE VOTO:

* Josu Ezkurdia: Antes de nada, queremos trasmitir que nos alegró saber que EH BILDU ha decidido seguir con este proyecto. Nosotros , al final de la anterior legislatura, pusimos en marcha el proyecto de ejecución de los nuevos gimnasios y es de alegrar que hayáis cogido el testigo. Por eso votaremos a favor. No obstante, no vemos muy claro el tema del leasing porque el Ayuntamiento está bien económicamente y se espera, además, que los ingresos aumenten este año. Por eso, no vemos adecuado pagar una tasa por intereses. Dicho eso, y partiendo de que ese es un tema de gestión, y que la gestión es cosa vuestra y que la respetamos, al estar de acuerdo con el proyecto, votaremos a favor.

## 6.- SOLICITUD DE DECLARACIÓN DE COMPATIBILIDAD .

Por resolución de Alcaldía de fecha 15 de diciembre de 2023 se aprobaron las bases generales y específicas de la convocatoria del proceso selectivo para la provisión, mediante concurso de méritos, de una plaza de trabajador/a social del Ayuntamiento de Eskoriatza.(Boletín Oficial de Gipuzkoa nº 244, de 27 de diciembre de 2022)

Terminada la valoración de los méritos, el Tribunal Calificador ha hecho pública la propuesta de nombramiento como funcionaria en prácticas a favor de Beronika Solaguren Martín.

Para poder ser nombrada y tomar posesión de la plaza de trabajadora social , la interesada ha cursado solicitud de compatibilidad con la actividad que viene ejerciendo en el sector privado.

Examinada la solicitud y considerando que las incompatibilidades de los empleados públicos se encuentran reguladas en la Ley 53/1984, de 26 de diciembre, de Incompatibilidades del Personal al Servicio de las Administraciones Públicas , cuyos artículos 11 a 15 regulan la compatibilidad o incompatibilidad con actividades privadas

Considerando que lo dispuesto en esta Ley es de aplicación a todo el personal al servicio de las Entidades Locales, sea cual sea la naturaleza jurídica de la relación de empleo, en virtud de lo dispuesto en su art. 2.1.c.9, en concordancia con el artículo 145 del Texto Refundido de las Disposiciones Legales vigentes en materia de Régimen Local , aprobado por Real Decreto Legislativo 781/1986, de 18 de abril.

Considerando que por lo que se refiere a la compatibilidad con el ejercicio de actividades profesionales, laborales, mercantiles o industriales fuera de las Administraciones Públicas, el artículo 14 de la Ley 53/1984, de 26 de diciembre, de Incompatibilidades del Personal al Servicio de las Administraciones Públicas , exige el previo reconocimiento de compatibilidad.

Considerando que la compatibilidad solicitada se ajusta a lo exigido por la Ley de Incompatibilidades del Personal al Servicio de las Administraciones Públicas

Considerando que la autorización o denegación de compatibilidad corresponde al Ayuntamiento Pleno, con el voto favorable de todos los corporativos presente y de conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Organización y Hacienda, el Pleno ACUERDA:

**PRIMERO-** Autorizar la compatibilidad a Beronika Solaguren Martín con el ejercicio de la actividad de administradora única de la empresa EZPELETA DRIVE ( CIF B42890376), por los motivos anteriormente expuestos y que se tienen aquí por reproducidos a todos sus efectos

**SEGUNDO**.- En ningún caso la autorización supondrá modificación de jornada de trabajo, ni horario del interesado y quedarán automáticamente sin efecto en caso de cambio de puesto en el sector público.

**TERCERO**.- El desempeño de la actividad en la citada empresa no podrá menoscabar, en ningún caso, el deber de residencia, la asistencia al lugar de trabajo, ni suponer atraso, negligencia o descuido en su desempeño. Las correspondientes faltas serán calificadas y sancionadas conforme a la legislación aplicable, quedando automáticamente revocada la autorización o reconocimiento de compatibilidad si en la resolución correspondiente se califica de falta grave o muy grave

**CUARTO**.- Notificar el acuerdo que se adopte a la interesada

## 7.- ORDENANZA REGULADORA DE LA INSTALACIÓN DE BARRACAS Y ATRACCIONES DE FERIA EN LAS FIESTAS DE ESKORIATZA: Aprobación inicial

Vista la propuesta de ORDENANZA REGULADORA DE LA INSTALACIÓN DE BARRACAS Y ATRACCIONES DE FERIA EN LAS FIESTAS DE ESKORIATZA que se presenta para su aprobación, y de conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Organización y Hacienda, el Pleno, por unanimidad, ACUERDA:

**PRIMERO.-** Aprobar inicialmente la ORDENANZA REGULADORA DE LA INSTALACIÓN DE BARRACAS Y ATRACCIONES DE FERIA EN LAS FIESTAS DE ESKORIATZA

**SEGUNDO.-** Someter el presente acuerdo a información pública por plazo de 30 días hábiles, mediante anuncios en el Boletín Oficial de la Provincia, en el tablón de anuncios de este Ayuntamiento y en su sitio web para que los interesados puedan formular reclamaciones, reparos u observaciones. En caso de no presentarse reclamaciones, reparos, ni observaciones, el acuerdo inicial se entenderá elevado automáticamente a definitivo.

**TERCERO.-** Facultar a la Alcaldía-Presidencia para que, por Resolución, pueda elevar el acuerdo inicial a definitivo, en el supuesto de que no se presenten reclamaciones ni sugerencias

## 8.- EXPEDIENTE DE MODIFICACION DE CREDITOS Nº 4

Dada cuenta del Expediente de Modificación de Créditos Nº 4/2024, mediante transferencia de créditos entre partidas presupuestarias de Gastos que afectan al Presupuesto de este Ayuntamiento.

Se da lectura al Informe emitido por la Secretaria-Interventora quien manifiesta que dicho expediente está ajustado a la normativa que le es de aplicación, en concreto a los requisitos establecidos por los arts. 28 a) y 29 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Guipúzcoa, por el que se aprueba el Reglamento Presupuestario de las Entidades Locales.

Igualmente se da lectura al informe favorable y propuesta de aprobación formulada por la Comisión Informativa de Organización y Hacienda.

Tras la correspondiente deliberación y sometido a votación, con el voto favorable de todos los corporativos presentes, el Pleno ACUERDA

**Primero.-** Aprobar el expediente de Modificación de Créditos, nº 4/2024, mediante transferencia entre partidas presupuestarias de Gastos que se relacionan en la propuesta formulada al respecto, correspondiente al Presupuesto de este Ayuntamiento y conforme al siguiente resumen por Capítulos.

**Partidas de gasto que transferirán créditos (bajas)**

| Partida | Denominación | Crédito inicial | Reducción | Crédito final |
|---|---|---|---|---|
| 1 0300.625.342.20.99 2024 | OTROS APARATOS: POLIDEPORTIVO | 99.107,70 | 99.107,70 | 0,00 |
| | | | | |
| | **TOTAL** | **99.107,70** | **99.107,70** | **0,00** |

**Partidas de gasto que recibirán créditos (altas)**

| Partida (*) | Denominación | Crédito inicial | Aumento | Crédito final |
|---|---|---|---|---|
| 1 0300.641.342.20.01 2024 | LEASING. MÁQUINAS PARA GIMNASIO DEL POLIDEPORTIVO | 0,00 | 19.700,00 | 19.700,00 |
| 1 0100.624.153.40.01 2024 | VEHÍCULO: OBRA Y SERVICIOS | 0,00 | 79.407,70 | 79.407,70 |
| | | | | |
| | **TOTAL** | **0,00** | **99.107,70** | **99.107,70** |

** Podrán crearse nuevas partidas presupuestarias

**Segundo.-** Siendo este acto firme y ejecutivo sin necesidad de ulteriores trámites procede que por los Servicios de la Intervención de Fondos se refleje en la contabilidad la modificación de créditos aprobada con efectos inmediatos.

## 9.- ELECCIONES AL PARLAMENTO VASCO 2024: Sorteo para designación de miembros de mesas electorales.

En cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 26 de la vigente Ley Orgánica del Régimen Electoral General, a través de la plataforma IDA_CELEC de la Oficina del Censo Electoral se ha realizado el sorteado para la designación de los miembros de las Mesas Electorales que se tendrán que constituir en las elecciones del próximo 21 de abril .(PARLAMENTO VASCO 2024)

Realizado el sorteo, la Corporación, por unanimidad, acuerda:

**Primero.-** Delegar en el Alcalde, asistido por la Junta de Portavoces del Ayuntamiento de Eskoriatza, la facultad de elegir también por sorteo a las personas para ocupar los cargos que pudieran quedar vacantes por la aceptación de alegaciones y excusas por parte de la Junta Electoral de Zona.

## 10.- RUEGOS Y PREGUNTAS.

No se producen.

**Y no habiendo más asuntos que tratar, se levanta la sesión a las 18:16 horas del día de la fecha. De todo lo cual como Secretaria doy fe.**